

# **Ibarguen-Cachopin kronikako “Errodrigo Zarateko” gaur egunean: tradizioa eta literatura kultua aztergai**

(“Errodrigo Zarateko” from the Ibarguen-Cachopin chronicle today: examining tradition and learned literature)

Kalzakorta Elorza, Jabier  
Deustuko Unib. Euskal Filologia Saila. Unibertsitateetako  
Etorbidea, 24. 48007 Bilbo

BIBLID [1137-4454 (2010), 25; 41-62]

Jaso: 2009.07.14  
Onartu: 2010.09.22

---

*Ibarguen-Cachopin Kronikan bilduriko eresi eta kantuen artean Errodrigo Zaratekoren kantu epikoa dago, orain arte ezezaguna harik eta Julen Arriolabengoak aurkitu eta argitaratu duen arte. Artikulu honek kantu horretan ageri den zaldi urdinaren motiboa arakatu du ahozko literaturaren tradizioan.*

*Giltza-Hitzak: Errodrigo Zaratekoren kantua. Zaldi urdina. Ahozko literatura. Tradizioa. Literatura kultua.*

*Entre los cantares y cantos recogidos en la Crónica Ibargüen-Cachopin se encuentra el canto épico de Errodrigo Zaratekoa, desconocido hasta ser encontrado y editado por Julen Arriolabengoa. En este artículo se analiza el motivo del caballo blanco en la tradición de la literatura oral.*

*Palabras Clave: El canto de Errodrigo Zaratekoa. Caballo blanco. Literatura oral. Tradición. Literatura culta.*

*Parmi les chants recueillis dans la Crónica Ibargüen-Cachopin on trouve le chant épique de Errodrigo Zaratekoa, méconnu jusqu'à ce qu'il soit retrouvé et édité par Julen Arriolabengoa. Dans cet article on analyse le motif du cheval blanc dans la tradition de la littérature orale.*

*Mots-Clés : Le chant de Errodrigo Zaratekoa. Cheval blanc. Littérature orale. Tradition. Littérature culte.*

## SARRERA

Iburguen-Cachopin kronikaren berri aspaldi genuen. Hor agertzen ziren euskal testuak ere ezagutzen genituen batez ere Mitxelenaren lanak irakurri. Testu horiek Bizkaiko Diputazioan eta Madrilgo Biblioteka Nazionalan gordetzen omen ziren. Iburguen-Cachopin kronikako euskal testu guztiak, ordea, ez zituen Errenteriko maisu argiak argitaratu. Julen Arriolabengoak, orain hamabi bat urteko lan batean, "Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan (1570-1620)"<sup>1</sup> artikuluan, Erodrigo Zaratekoren kantu epikoa, artean aipatu kronikan argitara gabe zetzana, eman zuen argitara. Testu zahar hau irakurri ondoren zur eta lur gelditu ginen. Testu honek, lehenengoz, 1996 urtean ikusten zuen silutegiko argia, baina bostehun eta berrogeitamar bat urteko zahartasuna bazuen. Bestela esan, Erodrigo Zaratekoren kantu epikoak (Erroitegiko guduko (1448-1468) gertaeren berri ematen zuena eta paper zaharren ilunbetan zetzana) XX. mende bukaerara ikusi zuen argia.

Pentsatzekoa da Erdi Aroko gudu gehiagok ere izango zutela ahozko kantuetan beren oihartzuna. Beste hitzez esan, uste izatekoa da garai bateko gudu odoltsuak kantatuko zituztela euskal bardo edo rapsodek. Aintzinatearik zaharreneko euskal ahozko kantuak, ordea, kea airean bezala, desegin dira gehienak. Ez non eta ez han, kanta asko ezerezean suntsituak izan dira, hitza airean bezala, baina ia kasu bakar eta bakan batean behintzat, zorionaren zoriona, erregistratu egin zen. Paperean erregistratu edo finkatu, gertaeratik ehun eta berrogeita hamar bat urte geroagora, kronika batean (1570-1620), Iburguen-Cachopin delakoan. Eta erregistraturik dauden kantuetako zenbait, mirarrietan miraria, liburutegietako ondoetan gordetzen dira. Gaur egun, arkaismoak arkaismo, kantu hori ulertzeko eta gozatzeko aukera dugu, zorionez.

Errodrigo Zaratekoren kantu epikoak, estiloari eta euskara-moldeari dago-kionez, ia garaitsu berean bildu zen beste kantu baten oihartzuna ekarri zidan, Adolfo Arejitak "Canción vizcayna" Domingo Egikori gorazarre kantua (XVII. Mendea)" artikuluan eskeini ziguna<sup>2</sup>, hain suertez ere. Geure lantxo honetan Erodrigo Zaratekoren kantu epikoaren kantu-pusketa edo segmentu bat aztertu nahiko genuke. Beste hitzez esan, testu kritika edo kritika testuala bideratu nahi genuke kanta-segmentu batera. Kanta osoaren testu kritika ezinezkoa da oraingoz. Era jakin bateko euskal testua –kantu epikoa, alegia– lo kanta eta are ume kanta zoragarria izan daitekeela frogatu nahi nuke lantxo honetan. Lantxo hau biribiltzeko, euskal alorrean hain maite ditudan zenbait azter-lan izan ditut eredugarri. Lau lan aipatzekotan Mitxelenarenak egingo nituzke, batez ere *Textos arcaicos vascos* liburua eta

---

1. ARRIOLABENGOA, Julen. "Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan (1570-1620). Butroeko Andrearen Eresiaren bertsio ezezaguna; Salinasko Kontearen Kantua; Erodrigo Zaratekoaren Kantu Epikoa". In: *ASJU*, XXX-1. 1996; 71-98 or.

2. AREJITA, Adolfo. "Domingo Egíari gorazarre kantua". In: *Euskeraren iker atalak* 2. 1983; 139-181 or.

“Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos”<sup>3</sup> eta “Tradición viva y letra muerta”<sup>4</sup>, eta, azkenik, “Miscelánea filológica vasca” saileko batez ere laugarrena<sup>5</sup>. Kantaren euskara aztertu eta iruzkinduz beste lantto bat egina dut, baina delako lan hori beste artikuluko monografiko batean atera nahiko nuke.

Artikulu konparatibo honetara ekarriko ditugu, ezinbestean, herri literaturako genero diferenteetakoa aleak. Beste hitzez esan, gure helburu nagusia konparatibo bat egitea denez gero, asmo horretarako hainbat kopia, ume-kanta (dela sehaska-kanta, ume-kopia, eta abar), balada segmentu aldatuko ditugu hona. Kanta oso zein puska horiek jatorrizko edo lehen argitalpeneko ortografia zein puntuazioarekin aldatuko ditugu artikulu honetara.

Esan beharrik ez dago, azkenik, denok nahi genuena bete dela oraingoan. “Errodrigo Zaratekoren kanta” zinetakoa eta benetakoa da, egunero zeruian agertzen den eguzkia bezalakoa. Ez da kanta apokrifoa, ez da mixtikazioa. Eta kanta epiko hori gure artera paper batean idatzirik heldu bada ere, izan du bide harrigarriago bat: ahozko tradizioarena. Ahozko tradizioaren bide hau da guk lantto honetan aztertu nahi genukeena.

## **1. IBARGUEN-CACHOPIN KRONIKA ETA “ERRODRIGO ZARATEKOREN KANTU EPIKOA”**

Iburguen-Cachopin kronika batez ere “Leloren kanta”—gatik ezagutzen dugu<sup>6</sup>. Zehatzago esan: atzerrietako erdal bibliografian, eta are hurbilen

---

3. MICHELENA, Luis. “Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos”. In: *FLV* III. 1971; 149-169 or.

4. MICHELENA, Luis. “Tradición viva y letra muerta”. In: *Homenaje a don José Miguel de Barandiarán*, t. II. Bilbao, 1967; 121-145 or.

5. Lehena *FLV*, 1978, X, 205-228 or., bigarrena *FLV*, 1978, X, 389-413 or., hirugarrena *FLV*, 1979, XI, 213-236, laugarrena *FLV*, 1979, XI, 377-406 or. Artikulu hauek guztiak *Palabras y textos* liburuan UPV, 1987, 363-463 or. aurkitzen dira.

6. Dagoen bibliografia ugaria albo bat utzirik –nahi izatera, jo bedi Arriolabengoaren beraren bibliografia atalera– jar dezadan Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca* obran dioena, 200 or.: “*Relaciones de Moguel y Humboldt y otros personajes. Sus ideas en torno al vascoence.* –Juan Antonio de Moguel mantuvo relación con ilustres personajes de la época. Además del P. Añibarro y de Juan Bautista Aguirre, escritores vascos como él, debemos contar entre sus amigos al apologista de la lengua vasca Pablo Astarloa, a Vargas Ponce, que había venido a estas provincias en busca de datos y noticias para una historia de la marina española que le encargó el Gobierno, y sobre todo al ilustre viajero prusiano Guillermo de Humboldt. Moguel fue el que dio a éste el famoso canto de Lelo, que luego Humboldt publicó y dio a conocer en Europa. Moguel descubrió este canto en la crónica inédita de Iburgüen-Cachopín, que existía en la biblioteca de Mugartegui, en Marquina. Iburgüen, a su vez, dice que lo tomó de un manuscrito que halló en el archivo de Simancas y que se contentó con copiar solamente una parte. El canto pretende ser un himno de guerra y de victoria que cantaban los antiguos cántabros, pero está fuera de duda que es una composición apócrifa del siglo XVI. Juan Carlos de Guerra opina que su autor pudo ser Antón de Bedia, servidor del emperador Carlos V. Tal como lo conservamos, está escrito en una especie de jerga, bastante ininteligible”.

ditugun bi erdaretakoan, batez ere "Leloren kanta" da euskal kanturik eza-gunena. Zergatik? "Leloren kanta", askok eta askok sinetsi zutenez, euskal-dunek erromatarren kontra gudukatu zutenean sortua zelako... Kantuaren gaineko bibliografia ere ikaragarria da. Kantu honen oraintsuagoko azken bi lan bikainenak Mitxelenak eta Julio Caro Barojak eskainiak dira. Iburguen-Cachopin kronika "Leloren kanta" baino askoz gehiago da, zorionez, askoz euskal testu gehiago eta erdal azalpen baliotsuz hornitua dagoelako. Testu hauen gaineko bibliografia zehatza Julen Arriolabengoak eskaintzen du bere lanean. Artikulu horietatik guztietatik Koldo Mitxelenak idatzi zituen bi ikerketarik ederrenak aipatzekotan "Los cantares de la quema de Mondragón (1448)"<sup>7</sup> eta "Las escrituras apócrifas de Andramendi"<sup>8</sup> izango lirarteke.

Testu zaharren ikerketa-esparru honek izan du, egunotan ere, lantzaile suharrik. Joseba Andoni Lakarra da, bere jarduera jarraituan, euskara zahar-raren misterioak zulatzen lan nekagaitza egin duenetako ikertzaile bat. J. A. Lakarrak zabaldutako ildotik datorkigu Julen Arriolabengoa, oraintsu argitara eman duen *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan*<sup>9</sup> lanarekin. Lan honetan aipatu dugun kronikako euskal testuen ikerketa sistematiko bat egiten du, hiztegia finkatuz eta irakurketa berriak eskainiz. Guri dagokigun testu bera bi eratara eman digu, 1996an argitara eman zuen "Errodrigo Zaratekoren kantu epikoa" artikuluan eta goraxeago aipatu dugun liburuan. Liburu honetan kanta bera apurren bat argiago eta garbiago ikusten dugu, orain dela hamabi bat urteko ilunune zenbait argituz. Hona hemen azken transkripzioa:

- 1 *Arma escuduac on dira dardos,*
- 2 *pareric estabe canporacos,*
- 3 *çaratearrac galdu ei dabe Marquia-Çuya çeculaco.*
- 4 *E[rrrodrigo] Çarateco, selan engana sindean*
- 5 *jaun Juane Abendañocogas gudua arçen sanean,*
- 6 *bi milla guiçon oi ditus bere lelenço deiean,*
- 7 *lau milla bere baleduque premia letorreanean,*
- 8 *Cortaçarretarrac delantereaa, Iburguendarrac urrean,*
- 9 *Gastelan Sarmientuarric asco, es pareric arean,*
- 10 *jaun Asençio Guebaraco ganean darda ordean,*
- 11 *Billela ta Arteaga, anage onac urrean,*
- 12 *saldi suriac on [t... c... ... d... ]rreanean,*
- 13 *onac arin, gog[oa] [fol. vto.] sendo, arerioaren asean.*
- 14 *Errodrigo Çarateco saldi urdinaen ganean,*
- 15 *bosteun caxcabel urreçorrisco saldiac idureanean,*
- 16 *carrerea laster eroean Erbitegui ganean,*
- 17 *arerioac ur jarraica arrebearen semea,*
- 18 *ona chipi, orpo laster, Abendanochea.*
- 19 *-Arren, echosu orain osaba, bixooc justa gaitean.*

---

7. BAP XV, 1959, 371-381 or. A. Rodriguez Herreroren laguntzarekin. *Sobre historia de la lengua vasca II*, 741-747 or.

8. BAP X, 1954, 171-190 or. Milagros Bidegainen laguntzarekin. *Sobre historia de la lengua vasca II*, 838-850 or.

9. ARRIOLABENGOA, Julen. *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan (XVI. mendea)*. Euskaltzaindia, 2008.

- 20 -Echi eguidac orailloba, gau bixiric noean,  
21 neure biçian enoaque Urquiçuren contrean,  
22 omenaje eguingo joat biçia dodan artean,  
23 bela vic sar naxaitec Billa Realgo torrean.

Kantu hau, gure iritzian, kantu osoago baten moldapena da. Moldapen honek izan du, nola ez, egokitzapen bat. Errima, ez aberatsa baina behintzat bateratua ikusten dugu.

Hizkuntza aldetik ezezik gainerako baladetan agertzen diren gertaera zenbait ere ez ote datoz honetan? Kopia zaharren teknika dator baladaren buruan. Lehen hiru zenbakietako biek irudi bat agertzen dute. *Arma-eskuduak on dira dardo*z horrek egitura bera du harako beste sarrera harrigarri harekin:

Sanda iliac atrac ditu zizarrez  
Nola zizarrez da ala zendalez...<sup>10</sup>

Zentzuari gagozkiola badu gure ustez antzekotasunik Alostorrea / Aldaztorrea baladarekin. Alostorrea baladan beleak –Bizkaiko euskeran *bela* kasu guztietan, transkripzio zaharretan eta berriagoetan– sartzen dira, edo erroi bat urrunean gertatutako zorigaitzaren albistari<sup>11</sup>.

## 2. KANTA ZAHAR EPIKO PAPER ZAHARRETAN DATZANA ETA GAUR EGUNEKO TRADIZIOA

Iburguen-Cachopin kronikan agertzen diren euskal testu guztiek *estatus* bera ote dute? Denak ote dira herri-kantak eta herri-testuak? Herri-kantak egiazkoak badira, ezer gordetzen da gaur egun? Eta azken galdera eginez, Erodrigo Zaratekoren kanta honetatik gaur eguneko ahozko tradizioan ezer gordetzen da?

Testu zaharren oihartzunak aurkitzen dira, zenbaitetan, ez oso aspaldi batutako testuetan, eta are gaur egunean tradizioan bizirik jarraitzen dutenetan ere. Lope de Vegaren *Los ramilletes de Madrid* obran datorren harako kopia zoragarri hura:

Zure vegui ederro<c>  
Ene lastana,  
Cativaturic nave,  
Librea ninzana.

---

10. Gorago aipatu dugun "Tradición viva y letra muerta" artikuluan, "los cantares de Sandailia" puntuan, ikus beza, nahi izatera, irakurleak. Bere teorien indargarri gaur egun badi-tugu datu berriak ere.

11. Beleak eta erroiak dira, Larramendiren hiztegian agertzen direnez, "aztinantza txarreko hegaztiak". Ohartzekoa da batailaren izena ere toponimo batek ematen duela *Erroitegi* (kantuan berean ere *Erbitegi* toponimoa ere badago, biak euskaldunen imaginarioan piztiak direla: erroi eta erbi).

Lo-kanta eta trikiti-kopla bezala iraun du gaur egunera arte<sup>12</sup>. Nik neuk batuak ditut, esaterako, gaur eguneko euskaldunen tradiziotik. Adibideak metaka eman daitezke. Gu, ordea, haririk galdu gabe itzul gaitezen Iburguen-Cachopin-en kronikara. Mitxelenak gure kronikako bereko adibide bat dakar *Tradición viva eta letra muerta lanean*:

Un refrán que Azkue registra en Txorierrri (*Bakio, aparta akio, al baakio: lapa-saldea orio*) no es otra cosa que la modificación de un dicho nacido de un incidente de las luchas de banderizos, contado en el cuaderno 64 de la crónica Iburgüen-Cachopin: "...y de aquí quedó aquel refrán que dicen *Vaquio laquio/guarda quio*, que quiere dezir, guárdate del lazo de Vaquio".

Ba ote dago horrelako gehiago? Mitxelenak dakarren adibidea halaxe ote da nahitanahiez? Ez ote da testu-oinarri bera bi leku desberdinetan erabiltzen? Helburu eta gai desberdinetako ahozko-oinarri berak ez ote dira erabilgarri jenero desberdinetan? Eman dezagun adibide bat. Barandiaranek bildu zituen sorginen kontuetan, narrazioarekin batera formula zahar zenbait ere badaude. Eman dezagun adibide polit bat<sup>13</sup>. Gizon bat sorginen aurrean pasatzen bada, sorgin batak besteari esaten omen dio:

Ik elakio, elakio

Halaxe bildu zuen Barandiaranek. Eta gaur honelaxe idatzi eta ulertu beharko genuke: *Hi hel hakio*. Hemen aditza "heldu" dugu eta nor-nori jokoan dugu. Heldu aditzaren erroa *hel* litzateke, hari markarekin, ordea, *hakio* da laguntzarilea, hots, "hi hari"<sup>14</sup>. Sorgin batak besteari, hika, heltzeko edo oratzeko diotso. Beste sorginaren erantzuna, ordea, hauxe da:

Or zeuzken orrek,  
Amak jarritta  
Errueda eta apio

Barandiaranek bildu zituen ipuin gehiagotan ere aurkitzen da formula hori. Gaur egun "heldu egion" edo horrelako zerbait izango zen. Formula horrek indar berezia du *apio/elakio* hitzen hoskidetasunagatik, eta oskide-tasuna bera da, jakina, formula horren euskarri nemoteknikoa. Era berean, *Bakio/lakio/aparta (h)akio* hitz eta esapideekin ere esaera eta kanta bat baino gehiago izan behar zen. *Bakio, lakio*, huts-hutsean, ez ote zen esaera zahar bat? Eman dezagun beste adibidetxo bat. *Sarrakio* hitzak "beldur

---

12. Neure lantto bat aipatu behar dut orain ezinbestean "Una colección antigua de coplas vizcaínas" in *Litterae Vasconicae Euskeraren Iker Atalak*, 9 alea, 2004, 9-63 or.

13. Guk Jose Migel Barandiaranen *Eusko-Folklore/ Materiales y cuestionarios*, año 1973, 3ª serie, nº 23 erabili dugu.

14. Kontu ezaguna da: *sar hakio* kanta zaharretan ere agertzen da. Ezagunak ditugu *joan zakizkio* bezalako formak. Kontua da berez *hel hakio* beharko lukeela, hau da, "hi hari" eta ez gerora sortu den *hik hel (h)akio*. Bertso zaharretan ere ikusten ditugu antzekoak. Zein bertsozalek ez du gogoan Txiritak andaluzari kantatu zion harako: *Argin bat etorri zaigu/ andikan onuntza./ Bart ipini ziguna/ olako laguntza./ Ona zala uste ta/ zakurraren putza. / Bera eroriko dek eta/ ez akio bultza.*

handia" esan nahi du. Azkuek honela itzultzen du "Pavor, gran miedo". Hitz hau batez ere Bizkai aldekoa da. Mogelek, Iztuetak eta Txomin Agirrek dakarte beldur handiaren zentzuari. Gaur eguneko Markinako euskeran ere erabiltzen da: *sarrakixue (sartu)*. Hitz hau, Azkuek dioenez, batez ere "sartu" aditzarekin erabili ohi da "sarrakioa sartu". Bestela esan, aditz lokuzioa *sarrakioa sartu* da. Autore klasikoek ere halaxe dakarte. Txomin Agirreraren bi adibide adierazgarri ekartzekotan hona hemen: *Sasien zabu bakoitzak arimainoko sarrakioa sartzan ziola* (Txomin Agirre, *Garoa*, 156), *Axe da sarrakioa sartu eustana* (Txomin Agirre, *Auñamendiko lorea*, 39). "Sarrakioa sartu", beraz, kolokazio bat dugu. Hau da "sarrakio" hitzak aditzen bat onartzekotan "sartu" aditza bakarrik onartzen du<sup>15</sup>. Ez ote da, beraz, sarrakio hitza *sar hakio* formatik heldu edo etorri? Ez ote ziren, garai batean, *hel hakio*, *aparta hakio* eta *sar hakio* formak normal-normalak? Ez ote ziren errefracu, kanta, formuletan eta abarretan gehiago erabiltzen. Hona, adibidez, "Xorittua, nurat hua?" kantaren hirugarren ahapaldia (J. D. J. Sallaberry: *Chant populaires du Pays Basque*, 158 or.):

Hasperena, habilua maitenaren borthala:  
Habil, eta erran izok nik igorten haidala;  
Bihotzian *sar hakio* hura eni bezala.

Itzul gaitezen berriro gure Iburguen-Cachopin kronikako beste pasarte batera. Honelaxe dator 62 kuadernoan, guk Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos* lanetik aldatuko dugu, 3.1.17 puntuan:

### Sorabila

Q(uand)o el emperador C(arlos) Quinto paso por Guipuzcoa, le salieron dos hidalgos de Sorabila al camino, y dicen q(ue) le dixeron lo siguiente:

*Cosc, Erregue, capela gorri.*  
*Achul ona, Sorabilan bost eche;*  
*Bost echeac, bost urre.*  
*Erregue jauna, eguiezu*  
*Alcabalez merchede.*

Ola, Rey del sonbrero colorado.  
Açeos aca. En Sorabila ay cinco casas,  
y ellas cinco como cinco oros.  
Senor Rey, azeldes  
merçed de las alcabalas

Y el Emperador les otorgo la merçed y quedaron libres de pagar alcabala.

---

15. Beste aditzen batekin ere agertzen da "egin", esaterako. Baina kasu gehienetan "sartu" aditza dugu.

Pasarte honetan Erregeri, Karlos bosgarrenari, zuzendutako "kapela gorri" deiki harrigarri bezain indartsuak ez ote du fortuna izan bestetan ere? Bizkaiko lurreen hain ezaguna den *Joan da etorri, kapela gorri* neurri batean, ez ote da jatorri berekoa<sup>16</sup>? Hipotesi modura nahitanahiezkua egiten zitzaidan galdera hau egitea. Erantzuna, kasu honetan, ez dago nahi genukeen bezain argi. Bestela esan, politegia bezain zailegia egiten zitzaidan Karlos bosgarrenari zuzendutako *kapela gorri* hori esapide errefracu batean gelditzea. Zentzuari gagozkiola, bestalde, Karlos bosgarrenari hurbildu zitzaizkion bi aitoren semeak ondo baino hobeto atera ziren. Lortu zuten beren jarrera eta portaera ausart eta harrigarriarekin alkabalak kentzea. Bestela esan bidaia probetxuzkoa baino probetxuzkoagoa egin zuten.

Iburguen-Cachopin-en kronikako beste pasarte handiago batek, ordea, bilakabide eta zer aztertu harrigarriak ekarriko dizkigu. Guk geure lantto honetan 14 eta 15 zenbakidunak hartuko ditugu aztergai. Hona berriz ere pasarteak:

Errodrigo Çarateco saldi urdinaen ganean,  
bosteun caxcabel urregorrisco saldiac idunerean

Pasarte honek uste baino joko handiagoa emando digu. Ez dugu segmentu honetako deklinabide markak aztergai eta iruzkingai izango<sup>17</sup>. Gure lanaren helburu nagusia, gorago esan dugun bezalaxe, intertextualitatea azterzea izango da. Beste hitzez esateko pasarte hau gaur egunera arte bildutako ume-kantuetan nola agertzen den aztertuko dugu.

### 3. BERNARDO ATXAGAREN TESTIGANTZA: OBABA ETA ZALDI URDINA

Bernardo Atxagak *Etiopia* liburua atera zuenean bi narrazio laburretan ("Kain, Abel" eta "Piolet poeta lirikoari buruz zenbait apunte"), bederatzir zirkulutan eta azken erreflexio batean eratu zuen bere liburua. Bederetzir zirkuluak banan-banan izentatu ondoren idazle baten aipu labur bat dator ondoren. Modu horretara lehen zirkuluan "Kabila poema"ren aipamen bat, bigarrean Jacques Rigaut delako batena, laugarrean Gerard de Nerval-

---

16. Argitaratzen gabe dudan lan batean hauxe idatzi dut gure esaeraren gainean: "51-Joan ta etorri, capela gorri Lo he oído varias veces pero nunca de los vizcaínos orientales. Se usa normalmente cuando se hace un viaje infructuoso. Gotzon Garate lo documenta en Mungia, Ajangiz y Zeanuri, y da la siguiente explicación "Joan bai etorri ere; egin beharra egin ez ordea". En Arratia se utiliza principalmente en Ceanuri y sobre todo la gente mayor, según me han indicado. Para entender de una manera lógica y cartesiana el termino *gorri* significa "desnudo", "desprovisto". Significa algo así como que el sombrero se ha traído vacío, sin llenar, como antes de partir en el viaje. En el valle de Urola, según tengo oído, se dice *alper-biajea egin*. Nuestra unidad fraseológica tiene el mismo sentido".

17. Hona zenbait lan interesgarri. Genitibo zaharraren erabilerari dagokionez, F. Castaños, "El genitivo en vizcaíno antiguo", BRSVAP, 1957: 60-69. J. A. Lakarra "Oharrak zenbait arkaismoz" eta "Bizkaiera zaharreko ablatiboaz", ASJU, XVII, 1983, 41-68 or. eta XVIII-1. 1984; 161-194 or.



ena... Hirugarren zirkuluan, ordea, ez dator inongo idazleren aipamenik, herrikanta baten aipamena baizik. Hona hemen:

Obabatxue obabatxue  
obabatxue doian orduen  
zaldi urdinen gainean  
beste hainbeste mile gehiago  
joango dire atzean.

Aipamen hau nondik norakoa den, non, noiz eta nola entzun zuen hitzaldi eta elkarrizketa batean baino gehiagotan azalduko zuen, seguru asko. Guk lantto honetarako testigantza argitaratuak baliatuko ditugunez gero, hona hemen Deustuko hitzaldi batean esandako hitzen transkripzioa:

Ba (askotan entzun izango dezue hau), ba, hau gertatu zan orain dala urte asko, nik orduan nituen 25 urte; gutxiago, 23 urte. Bilbon bizi nintzen hemengo apopilo etxe batean, eta etxe horretako ugazaba andrea Zeanurikoa zan, eta gainera zan Deustuko karamelu saltzailea. Ni bere etxean egoten nintzen apopilo, esan dedan bezela, eta halako batean magnetofoi bat erosi nuen eta, probatzearen edo, esan nion andre horri, alegia, zerbait kanta zezala. Nik espero nuen berak halako kanta arrunten bat edo ezagunen bat kantatuko zidala; eta hor non andre hori hasi zan gero Etiopian atera nuen sehaska kanta bat botatzen. Eta esan zidan, hasi zan kantatzen, esan nahi det:

Obabatxue, obabatxue  
obabatxue, beilegi  
sein honek aite dirudi  
ikisiko dau dantzan ondotxo  
aitegana emon baledi.

Gero:

Joxe Manuel, Joxe Manuel (Joxe Manuel bere semea zan)  
Joxe Manuel doien orduen  
Zaldi urdinen gainean  
Beste hainbeste mile gehiago  
Joango dire atzean.

Gauzak hola, ikusi nuen bapatean bi egia desberdin: bata zein urria dan Euskal Herriak eduki duen ...orain esaten det "erakundea", baina esan nezake zein ttikia eta eskaxa izan dan euskaldunok izan degun jasotzeko joera eta untzia, ezen kanta hau, Deustun bizirik zegoena ez baitzan inongo liburutan, azaltzen ezta? Hori pentsaezina izango litzateke beste edozein kulturatan, pentsaezina aurkitzea Almendralejo batean, esate baterako, kanta bat, andre batek kantatua eta kanta hori, tradizionala, ez egotea liburuetan. Baina konturatu nintzan hemen gauzak ez zirala berdin, eta gerta zitekeela sehaska kanta bat Deustuko andre batek jakitea eta liburuetan ez ezagutzea, ze sehaska kanta hau ez zan azaltzen. Horretaraz gain konturatu nintzan "obabatxu" zer hori, umeari hots egiteko modu hori, horrek adierazten zuela alfabetuaren lehengo letra ez zala a delakoa, baizik eta b delakoa<sup>18</sup>.

---

18. ATXAGA, Bernardo: "Obabakoak-en gainean (1988.eko Abenduaren 19an Deustun emandako hitzaldia.)", *Enseiukarrean*, 5 zenbakia, 1990, 1-30 or.

Bi sehaska-kanta hauetatik bigarrena da *Etiopia* liburukoa, baina zehaztasun bat duela. Nori zuzendua dagoen kanta esan beharrean (emakume kantariaren umea: Jose Manuel) "obabatxue" delako apain olerkia jartzen du Bernardo Atxagak. Ez dago esan beharrik, behin honetaz gero, nondik norakoa den gerora gure idazle handiak sortu zuen Obaba geografia magikoa. Baina kontu hau ez dagokio guk lan honetan hartu dugun arrastoari. Eta hari-rik galdu gabe segi diezaiogun geure lorratzean.

#### 4. ZALDI URDINAK AZALTZEN DUTEN LOKANTAREN TESTIGANTZAK

Egia da, bai. Guk dakigula ez da agertzen Bernardo Atxagak transkribitutako lokanta inongo euskal kantutegitan. Azkueren eta Aita Donostiaren kantutegietan ez dugu aurkitu. Alferrikakoa da, era berean, Iparraldeko kantutegietan bila aritzea. *Obabatxua* apain olerki politaren antzekoa den *buba* (*niña*) eta antzekoak aurkituko ditugu, baina zaldi urdinik ez. Han-hor-hemen argitara emandako lanetan, ordea, badira antzerakoak. Has gaitezen eza-gutzen ditugun aipamenik edo artikulurik zaharrenetatik.

On Manuel Lekuonak 1930an *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian<sup>19</sup> honela batzen du:

Gure umetxua datorrenian  
Saldi urdiñaren ganian,  
Bosteun kaskabel urre gorrizko  
Saldijek bere idunian;  
Beste ainbeste eta gejago  
Atzeko petrandelian.

Non batu ote zuen kanta hau Manuel Lekuonak? Gehienetan kantaren jatorria herri baten izena kantaren buruan duela jartzen du Lekuonak. Gure kanta honen jatorria, ordea, ez dakar. Hurbilen dagoen herri-izena Oiartzun da, baina ezinezkoa da, inolako dudarik gabe, kanta hau Oiartzunen batua izatea. Zergatik? "Idun" hitza Bizkaikoa da ia ehuneko ehunean. Fonetismoak edo fonetizismoak ere ezin dira Oiartzungoak izan: *saldijek*, *-txu* ttikigarria, *gejago*... Bizkaikoa izan behar du nahitanahiez "zaldi" hitza, gainera ere, bi aldiz dago Bizkaiko ahoskerarekin: "saldi". Kontu hauek guztiak gutxi balira "ganian" dator eta ez *gain/gaiñ-ian*...

Kanta honen adibiderik ederrenak, ordea, Julian Yurre kaputxinoak emango dizkigu<sup>20</sup>. Hona hemen, lehen, berak dakarren bezala-bezalaxe:

---

19. LEKUONA, Manuel: "Cantares populares", *Anuario de la sociedad de Eusko folklore*, tomo X, 54 or. eta *Idazlan osoak*, I tomoa, 511 or.

20. YURRE, Yulen. "Lo-kantak edo seaska-eresiak". *Egan*, vol. XXVII. 1968; 25-34 or.

Obatxua lo doie,  
neure umie lo doie;  
neure umie lo doienean  
zaldi urdinen ganien,  
bosteun kaixkabel urre gorritzko  
Zirunen petral ebien.

Gure oraingo hau Justa Elguren andereari hartua zen 1957 urtean, misio-garaian eta Muxika herrikoa zen. Hizkuntza xehaztasun batzuk ere ematen ditu. Hona hemen: Ziruen: idunez lez? Idunen: "en el cuello", petral "correa".

Bigarren testigantza bat ere emango digu, antzekoa bada ere modu garbiagoan emana:

Gure umetxu doyen orduen  
zaldi urdiñen ganien,  
bosteun kaskabel urregorritzko  
zaldiyek idunerien;  
beste ainbeste eta mille geyago  
atzeko petralerien.

Askoz garbiagoa dugu azken eredu hau arrazoi askogatik. Lehenengo eta behin, zahartasunaren aztarrenak askoz garbiago daude. Ablatibo zaharra (jatorrian sing. *-rean/* pluralean *-etarean*) garbi-garbi agertzen da bi kasutan: *idunerien* eta *petralerien*. Lekuonaren adibidean iluntxo eta itxuraldaturik ikusten dugu: *petrandelien*. Badirudi ablatibo zaharra (*-rean* eta horren aldaera edo fonetizismoa den *-rian*) itxuraldaturik, edo hobeki esan, itxuragabeturik datorrela (petran)-delian horretan. Oso antzeko kontua daukagu Yurreren lehenengo adibidean: *petral-ebien*. Kasu bietan, erratzeko bide handirik gabe, *-RIEN* batetik datozela dirudi.

Julen Yurreren adibide honek eta Iburguen-Cachopinen kronikan datorrenak bateratasun harrigarriak dituzte. Bateratasun hauek edukiari zein formari dagozkionak dira. Edukiari bagagozkio zaldi urdina agertzen da urrezko kaskabelak dituen. Kaskabelen kopurua ere bera da: bostehun. Bostehun urte inguru pasatu badira ere Erodrigo Zaratekoren kantaren sorreratik zenbakiaren kopurua bera da. Harrigarria da puntu honetan gainerako eredu antzekotasuna ere. Bi zenbaki erabiltzen dira gehienetan: berrehun eta bostehun. Hizkuntzari gagozkiola, hitz zaharkituen erabilera da aipagarria. Hitz zaharkitu inolako dudarik gabe "idun" dugu<sup>21</sup>. Baina are harrigarriagoa egiten da "idunerian" eta "petralerian" hitzetan hain aratz datorren ablatibo zaharra.

---

21. *Idun* hitza, inongo dudarik gabe, gainbehera dator Bizkaialdean. Zeanuri aldean, Ander Manterolak diostanez, gizeozkoak arkondara lotzeko erabiltzen zuten lazuari *idunekoa* esaten zitzaion. Mungialdeko herrixketan biziago omen dago. Fruizen, bildu ahal izan dudanez, iduna eta idunekoa esaten dute. Lehena "sama" delakoa adierazteko, bigarrena "koilarra" omen da.

J. L. Atxoteguiak ere bildu zuen, bestalde, Arratian kanta hau. Guk kontsul-tatu ahal izan dugun lan argitaragabe batetik (*La vie musicale dans la vallée d'Arratia. (Memoire d'etnomusicologie Ephe, Paris, 1975)*). Honelaxe dator, Zeanuriko aldaeran:

Naure laztana datorrenian  
zaldi urdinen ganian  
berraun kaskabel urregorritzko  
zaldiek idun ganian<sup>22</sup>.

Oraintsuagoko liburuetan ere aurkitu dezakegu gure kanta neure adiskide den Luis Baraiazarrak bere *Nire umetako Meñaka* liburu autobiografikoan, honelaxe dakar 253 orrialdean:

Obabatxue lotirintaña  
zaldi urdinen ganian  
zaldixek zazpi kaskabel  
aurreko bularpian.

Behin kontuak honetara, lau kasuetan zaldi urdin bakarra edo bat baino gehiago ote ditugu? Beste era batera esateko, lokartzen den umea zaldi urdin bakar batek edo zaldialde eder zoragarri batek ote darama? Azken kasu honetan ez ote dirudi bat baino gehiago direla? *Zaldi urdiñen ganien* plurala izan daiteke, formaz singularra *zaldi urdiña(re)n ganien* izango litzatekeelako. Baina kontu hau ez dugu kasu honetan erabat garbi ikusten...

Ez litzateke harritzekoa, beste era batera esateko, –nahiz eta eskuan bost atzamar ditugula bezain segurua ez izan–, bat baino gehiago izatea, halako zalditeria xoragarri bat izatea bidaiari goratasun eta bikaintasuna eman<sup>23</sup>. Animalia multzo horren adibide izango genuke esaterako Julian Yurrek biltzen duen beste lokanta harrigarri hau:

Amar mandorekin,  
kriyedue aurretik,  
zortzi tanbolinteru  
zortzi tanbolinteru  
kotxien atzetik.

Ume bat lotan eramateko bidaia zeruarteko batean ez ote da holako mandoteriarik behar bere kriadu eta tanbolinteroak mando-kotxearen atzetik dituela? Era berean, aberastasun handiaren erakusgarri zaldi urdin zamalda batek ez ote du ume txikia eramango?

---

22. Derioko bibliotekan kontsultatu dugu aipatu dugun lana. Testu honetan argi ikusten denez, Zeanuriko euskeraren ezagugarriak ikusten dira garbiri: *naure*, *berraun*. Informantea edo berriemailea ere neure berriemaile eta lagun handi zen Bitoria Artetxe izango da, seguru asko. Esan beharrik ez dago, nik neuk ere batu nion lokanta hau.

23. Buruz ari naiz eta aurkitu beharko nuke ahapaldi exaktua. Emily Dickensonek ez ote du poema xoragarri bat zinetan esaten duen zaldi zuri batek bezala eramaten duela irakurlea poema batek? Ez ote dira, kasurik onenean, amets-bidaia zoragarri bat loak eta poesia onak eskeintzen dutena?

## 5. ERREGISTRO DIFERENTETAKO ESALDI EGIN ETA FORMULEN BATERATASUNAK

Ez dago begi-bistarago agertu beharrik. "Errodrigo Zaratekoaren kanta"-n *Errodrigo Çarateco saldi urdinaen ganean,/ bosteun caxcabel urregorrisco saldiac idunerean*, puska edo segmentua lo-kanta bihurturik etorri da gugana. Kanta bizkaitar zahar baten pusketa bat, gainera, Bizkaiko gaur eguneko tradizioan ere bil daiteke. Bizkaiko eremu edo lurralde hauek Arratia, Mungialdea, Gernikaldea dira. Bizkai barruan, beraz. Bizkaiko sortaldean, Lea-Artibai bailandan, Markinaldean hain juxtu, ez da holakorik batzen nik dakidala.

Behin kontuak honetara, nik neure buruari askotan egin diodan galdera bat formulatuko dut. Kanta zahar epikoak zein mitoetako formulak ez ote dira beste erregistro batzuetako kanta zein formuletara aldatu? Edo-ta beste era batera ere adierazirik, ume kanta inozo ustekoetan ez ote daude trinkaturik beste alor eta erregistro batzuetako formulak? Eman dezagun adibide bat:

Kabi-kabi kiñarra  
Kañaberia larrosa,  
Kabelin da kabelin  
Jaunak nora zorase?  
Kalia gora, kalia bera  
Bost intxaurren erditik  
Eskuan daukat asija  
Poltsan urregorrija,  
Akerra baltzan señoiriari  
Atarakotzat eskumako  
Begi gorri-gorrija. (*Euzkadi*, 1933-6-21)

Ustez inozo eta zentzu handirik gabea den Mañariko kanta honek ez ote du halako misterio bat bere barruan. Don Jose Migelek "En Sorgintzu y Arrantzu" deituriko sorgin-kontakizunean (*Eusko Folklore, Materiales y Cuestionarios*; 1922, N<sup>o</sup> XXIII) izaki bildurgarri batzuen etxean pasatzen dute gaua sardina-saltzaile bik. Eta dirua eskatu beharrean ume-formula dirudien erretolika harrigarri bat esateko Zumaiko San Pedroko seroreari da. Hona formula harrigarri hori:

Señora de Galarra  
Maria de kutiperra  
Txintxin kalabera  
Erranen duela  
Bart Akelarren  
Eman duen gaba  
Goguan izango duela

Puntu honetan berean jarritakoak eta beste honek ez ote dute antzekotasunik? Bietan akerra aipatzen da. Mañarikoan Señoria ere agertzen da, ez ote da Anbotoko edo Aketegiko edo beste nonbaiteko Señorea? Eta beste alde batetik begiraturik, *Atarakotzat eskumako begi gorri-gorrija* ez ote da elizen eraikuntzan (ikus *Eusko-Folklore Materiales y Cuestionarios*, 1925, N<sup>o</sup>

XLIX) agertzen den formularen antzekoa? Hona konparagarritzat gehienetan agertzen den formula egina:

Idi beltza ta zurije,  
Begira dagonari  
Atara begije.

Kasu bietan (zelatan edo begira dagoenari) begia ateratzeko kontu bel-  
durgarria dator.

## 6. ERROSE BUSTINTZA "MAÑARIKO"-REN BILKETA HARRIGARRIAK

Errose Bustintzak *Euzkadi* egunkari abertzaleko euskal atalean, 1933ko ekainaren 21an, Urkiolapean, Mañarin, umetako jolas eta kantuak jarri zituen artikulu zoragarri batean. Horko errexitatu eta testuetako zentzua ez da erraza ulertzen. Testuak urteen joanean itxuragabeturik daude askotxotan. Nengan elurraren etorrerari harrera egiteko honelako kantu hau dakar:

Edurra dator menditik  
Urkiola-ganetik  
Amak opillak labatik  
Aittak ardaa zaragitik  
Amamak okelia lapikotik  
Attatak sagarrak kamaratik.

Kantu honen azalpen modura honako testu hau dakar barrenean: "Negubak, lenengoz edur zurijagaz atxak apaintzen ebazanian, sutonduan danok jezarrita kantu ori abesten geban". Kantu horri, zorionez, beste zerbait zerraion, segida ederragoa zuen. Hona aurreko urtean (*Euzkadi*, 29 Diciembre 1932) honelaxe zekarren:

Aldi ontarako eguraldi edertxo daukugu. Aspalditxuan ederra uxo xamar yabilku mendi erpiñetan eztogu ikusten eta Gabon ostian ja zelakuak jausiko diran! Guk txikitan edurra jausten ikusten gebanian onan abestzen geban:

Edurra dator menditik  
Urkiola ganetik  
amak opillak labatik  
attak ardaa zaragittik  
amamak okelia lapikotik  
attatak sagarrak kamaratik.

Gure neskia ba-dator  
zaldi urdiñen ganian  
edur-lumazko kapa zurija<sup>24</sup>  
lepotik bera soñian,  
berreun koskabel urregorritzko

---

24. Jatorrizkoan *zuriya* dakar, baina Mañariko ahoskeran *zurija* izan behar du, geroago ere halaxe agertzen da eta.

zaldiyek bere idunian  
zidar utsezko perra zurijak  
inkatzen dituz lurrian.

Segida honen arabera guri dagokigun pasartea modu zoragarrian emana dago. Are gehiago: Erodrigo Zaratekoren kantuaren testigantza zaharrarena hauxe dugu, inolako dudarik gabe. Elur zuriaren etorrera izaki imaginario baten irudipean ematen da. Elementu berriak ere agertzen dira bigarren ahapaldi gisako honetan "edur lumazko kapa zurija" eta "zidar utsezko perra zurijak/inkatzen dituz lurrian". Eguraldi atmosferikoarekin, elurraren etorrerarekin, zaldia eta zaldizkoa lotzea uste baino zentzuzkoagoa da, eta hainbat kulturatan errotua dagoen ideia bat dugu. "Zaldizko" hitza euri-adar sendoa ere bada. Hainbat esaeratan agertzen da "Saldizkoakin da eurixa" modu indartsuan euria egiten duela adierazi nahi du Oñati aldean (ikus Kandido Izagirreraren hiztegia). *Zaldizko ederrak heldu dira* (G-azp, AN-gip) euria sendo eta erradaka egingo duela adierazteko. *Euria zaldizko(e)kin ari du* edo *elementuak zaldikoekin ari du* Nafarroakoa euskeran ondo dokumentatuak daude. Orixek ere *Euskaldunak* poeman, euri gogorra adierazteko *Gaur etorko dira/ zaldizkoak eultzitara* Or. Euska 334<sup>25</sup>. Badugu gehiagorik ere. *Zamarikatu* aditza, "zamari" hitzetik datorrena, erauntsiekin ere erabiltzen da, eta pentsatzekoa da edozein erauntsierekin dela: dela euri-erauntsia, dela elur-erauntsia, dela harri-erauntsia... *Zamarikatuz ari da erauntsia* adieraztean, euria edo dena delakoa txandaka eta tarteka (gogor) ari duela esan nahi du. Hemen ere, beraz, zaldizkoaren irudia baino argiago ikusten dugu zaldiarena...

Baina kontua ez da bakarrik horretan gelditzen, Errose Bustintza "Mañariko"-ren beraren "Lamina dantzaria" ipuinean esaera bat ere badator. Hona esaldi osoa: "Zelako edertasuna dozun bazenki, edozeinentzat ez zengokez... *Zaldi urdineko* asko be zeure gai ez dira eta". "Zaldi urdineko gai izatea" nonbait esapide egina zen Mañarialdean eta zaldun dotore eta handiaren gai izatea esan nahi zuen. Zaldi urdinaren gainean dabilen jaun handia adierazi nahi du<sup>26</sup>. Zaldi gaineko maila handiko jauna are handiagokoa izango zen "zaldi urdinaren" gainekoa bazen.

---

25. Gerard Bähr-ek ere "Alrededor de la mitología vasca". In: *RIEV*, nº 22, 1931; 120-122 or.

"Pero aún fuera de la esfera mitológica los germanos propendían a concebir como animadas las cosas inanimadas de la naturaleza. Así llamaban "caballos" o "jinetes" a las nubes que corren rápidamente empujadas por el huracán y las olas azotadas por los mares hacia la playa, cuyas crestas blancas y espumosas se les antojaban las crines de los caballos. Esta metáfora se conserva durante muchos siglos como giro poético en las canciones tanto anglosajonas como escandinavas y alemanas. No puede menos de acordarse de esto el que ve que en vascuence se llama comúnmente en todos los dialectos *zaldizko*, es decir, "jinete" a la columna de la lluvia. En la Guipuzcoa meridional se usa además en el mismo sentido *mandako*, lit. "muleto". El caballo y sobre todo el caballo blanco o negro es con frecuencia símbolo o tributo de ciertas divinidades en varias mitologías, así como el águila lo es de Júpiter, el mochuelo de Palas Atena y el cuervo de Wodan u Odín."

26. "Oinezkorik ez eta zaldizkorik ez" errefrauak badu honekin zerikusiren bat. Honen aldaera arratiarra, noizbait ikasi nuenez: "Oinezkorik ez eta zaldi ganekorik ez".

## 7. KASKABEL URREGORRIZKOAK ZER ADIERAZI NAHI OTE DUTE?

Herri literaturan urregorria askotan agertzen da. Gure irakasle maite on Manuel Lekuonak koplazaharrei gotikotasuna eransten ziotela zioen urre-zilar gauzek. Garai bateko estetika bat ere badugu. Eske-kopletan etxeko jaunak urregorritzko bizarra du. Etxekoandrea, esaterako, "urresillan da jartzen". Ataungo dantza kopladian aipatzen den panderoa ez da nolana hikoia. Hona panderoaren ezaugarriak:

Ai au pandero berria  
Iruñetik ekarria,  
egalak ditu urdiñak  
erdian urregorria.

Hasteko eta behin, urrutitik ekarria da Ataunera, Iruñetik!<sup>27</sup> Eta koloreari dagokionez: hegalak ditu urdiñak eta erdian urregorria! Ez ote da harrigarria gure lo-kantaren ezaugarri berberak hemen egotea? Urdina eta urregorria? Baina gure kantari dagokionez zaldi urdinak kaskabel urregorritzkoak ditu. Nolakotasunari garrantzia handia ematen zaio. Baina nolakotasunari ezezik zenbatasunari ere bai. Bostehun dira kaskabel horiek. Eta bostehun asko ere asko da. Bestela esan, zaldi urdinaren apainduria den kaskabel-ilada neurritz gainekoa da bere kalitatean eta kantitatean.

## 8. ZER ADIERAZI NAHI OTE DU "ZALDI URDINAK"?

Urdin koloreak badu hurbiltasun nabari bat zuri kolorearekin. Zaldi urdina ez da guk usteko genukeen zaldi "blua" edo "azula". Grisaren tankera duen kolorea da, inolako dudarik gabe. Maila sinbolikoan "zaldi urdina" eta "zaldi zuria" ere oso hurbil daude asto zuriaren sinbologiarekin. Zaldi zuria, eta, uste dugunez, zaldi urdina euskal mitologian behin baino gehiagotan agertzen dira<sup>28</sup>. Zaldia beste alor batera ekarritz, nork ez ote du Bizkaian entzun, urte-sorta handi samar bat bizkar gainean badarama, "asto zuriaren tripara joan" esaera. Nik behintzat etxean sarri samar entzun dut. Eta asto zuriaren tripara

---

27. Ataun eta Iruñea gaur dauden leku berean egongo ziren orain dela ehun urte baino gehiago. Baina distantziak gaurko bizimodu berrian laburtu dira, denok dakigunez. Panderoa dantza-kopletan beti da leku urrutitik ekarria: Bilbotik, Madriletik... Pentsatzekoa da, era berean, zaldi urdinak ere urrutira egingo duela bidaia... Amets bidaia bat delako.

28. Barandiaranen *Diccionario ilustrado de mitología vasca* laneko zaldi hitzean pasarte bat bakarrik aldatuko dut hona: "La visión de este animal, tan estimado por nuestros antepasados, determinó algunas formas de expresión o símbolos de su vida espiritual. En efecto, es en forma de caballo como son representados ciertos genios subalternos o personajes que figuran en ciertos relatos míticos del pueblo vasco. Así, en la región de Tardets existe la creencia de que de la caverna de Laxarriguibele, situada en una estribación de Ahuski, cerca de Alzay, sale un genio de figura de caballo blanco que una vez secuestró a un mozo de aquella comarca, flojamente integrado en su medio social. También fue secuestrada una hija de Etsoinberri –caserío de Berástegui– por el genio de la sima de Obantzun que se le apareció en figura de yegua. También una hija del caserío Irari o Irabi de Amézqueta fue llevada a la caberna de Marizulo (Aralar) por un genio de figura de caballo blanco."



badoa norbait, pentsatzekoa da amets-bidaia xoragarri batean eramango duela delako asto zuriak... Ez ote da antzeko zerbait zaldi urdinak eramatea, pentsatu dut neure artean, behin baino gehiagotan?

Beste alde batetik begiraturik, "astozuria" galbana dugu, hau da, loaren edo loguraren antzeko zerbait. Eta harrigarria badirudi ere "zaldizuria" ere dokumentatzen da, behintxo bada ere. Hona J. E. Zulaikak "Baserriyan" irakurgaiari idatzi zuena:

Txillar onduan erbi-abiya letz erdi-ekzutuan zuaiztiyan etzinda dago Lizarraga. (...) Biurtu biarko adi detan sailla amaitu arte behintzat. Gaur lan gogorretarako zaldiurdiña daukan eta zulotoko lizarditik ekarriko det ostrua. Urrenguan juango naiz pagadira.

"Lan gogorretarako zaldiurdiña" badu, ez duela gogo handirik adierazi nahi du zuhaitzian etzanda dagoenak. Lanaren oin-oharreen honelaxe dio idazleak: "zaldiurdiñak Aizarna-n esan nai du galbana". Azkuek *Euskalerrriaren Yakintza III* alean, beste leku batzuetako testigantzak dakartza. Hona Bizkaikoak: *Galbana* (293 or.). *Asto zuri* (B-m), *zaldi urdin* (B-tx), liter.: burro blanco, caballo azul.

Esangura horretatik baino hurbilago ez ote dago izaki mitologikoetatik? Izaki naturagaindikoengandik hurbilagokoa da gure ustez "zaldi urdina". Gure mitologiako numenak, zenbaitetan, *zaldi zuri* edo ederren gainean ikusten ditugu. Hona Gerard Bähr-en "Alrededor de la mitología vasca" laneko pasarte eder bat<sup>29</sup>:

Las leyendas que sobre la Dama de Amboto o de Akategi corren en Guipúzcoa suelen contar que ella fue primero una chiquilla inocente que huyó de su casa después de haberla maldecido su madrastra por una falta insignificante. En una versión que recogí en Amézqueta se dice que ella escapó *zaldi zuriren gañên*, "montada en un caballo blanco". Hay un toponímico en el monte Aizgorri –no recuerdo si se trata de un peñasco o de una pradera– llamado por los pastores *Beorzurieta* lo que significa "lugar de la yegua blanca", y que no dista mucho de los lugares donde se supone residía la Dama de Akategi. Por fin hay una locución curiosa en Legazpia que parece ser del caso. Cuando durante la siega del trigo los niños quieren descansar o tumbarse agobiados por el calor y la galbana, se les anima a seguir trabajando diciéndoles. "*Ekin lanai! Bestela zaldi zurie etorriko zatzue*". Los que se valen de esta frase para amenazar a los chiquillos perezosos en la cosecha ya no saben dar cuenta ni de su origen ni de su verdadero sentido. Permanecería bastante misteriosa esta locución si no tuviéramos referencias semejantes en el folclore de otros países. (...) Es muy probable que el *zaldi zurie* de la frase de Legazpia tenga algo que ver con estas creencias y particularmente con el temor a las pesadillas que transformadas en vaca negra amenazan el sueño del que está durmiendo pacíficamente, pues, si bien recuerdo, se les prohíbe a los chiquillos precisamente el quedar dormidos en el campo.

---

29. Gerhard Bähr, "Alrededor de la mitología vasca", *RIEV*, 1931, XXII, 119-122 or.

Pasarte luzetxo honek gure zaldi urdinaren gaineko argi-ilunak ez ote ditu apurren bat bada ere argitzen? Izaki mugatu ezin edo *ghost* beldurgarriak ez ote dira zaldi zuri edo urdinen gainean zamalkatzen dutenak?

## 9. HERRI GENERO DESBERDINETAN "ZALDI URDINAK"

### 9.1. Euskal balada zaharretan "zaldi urdinak"

Euskal balada zaharretan zaldiak askotxotan agertzen dira, begi bistakoa denez. Zaldiak, gainera, handiki eta dirudunenak direnez gero, ez dira nolana hikoak, zaldi apain eta zaluak baizik. "Apez beltza"-ren baladan, Bordagarairen zaldia ez da nolana hikoak, zazpi arkuko zubia saltatzen baitu. Guk bilatzen dugun zaldi urdinaren gure ustezko esangura "zaldi gris edo urdinabarra" litzateke, ordea. Animaliarene kolorea erdarazko "gris" hitzetik hurbilago legoke "azul" hitzetik baino. Zuberoko "Errege Jan" baladan honako adibide hau aurkitu dugu:

Am'andera, zer die mithil hoiak  
hainbeste nigar marrasketan?  
Ene alhaba, ezin begira  
galdü diñe zaldi gris bat.

Hurrengo ahapaldian ere errepikatzen da hitz eta adjektibo bera:

Ez zaldi gris batengatik  
ez ürh'untzi batengatik  
ez othoi egin nigarririk.  
Errege janek ekharriko dizü  
ürhe eta zilhar armadetarik<sup>30</sup>

Zaldi gris hau ez da besterik gure baladakoa baino. Baina bi hitzak zaldi eta urdin batera bi euskal baladatan agertzen da. Lehena "Sortu nintzan Etxauzian..." alean, 155-157 or. Antonio Zavalaren *Euskal erromantzeak/Romancero vasco* (hemendik aurrera ER):

Bizkandia armaturik,  
Zaldi urdina zelaturik,  
Urrutian sartu züzün,  
Urrutia eskapi leihotik.

---

30. Charles Bordes: "La musique populaire des Basques", in *La Tradition au Pays Basque*, 297-354 or.

Bigarren balada "Maria Magdalena bere egunean..." ER, 753 or. Balada honetan zaldi urdinarekin Maria Magdalena elizan sartzen da. Gaur eguneko begietatik ikusita gertaera harrigarria da holakorik izatea. Garai bateko zaldun boteretsu zenbaiten eskubidea hori omen zen, elizan zaldiz sartu ahal izatea. Hona hemen:

Maria Magdalena  
bere egunean,  
seda morez jantzia  
bere so[i]nean.

Juan zan elizara  
zaldi urdinean,  
jarri zan belauniko  
pulpitu-pean.

Andra Maria Magdalena elizan zaldiz sartzen da. Kopla zaharretan, beste alde batetik, etxeko andrea zaldiz elizaratzen omen da.

## 9.2. Kopla zaharretan "zaldi urdinak"

Eske kopletan zein dantza kopletan zaldi urdinak ikusi ditugu. Dantza kopla lotu edo biko batean honako hau aurkitu dugu. Azkuek bildu zuen kopla bikote zoragarri batean honelaxe dator:

Antxiña esan nion  
Maria Kurtzelu,  
iluneko jokua  
ez dala seguru.

Iluneko jokua  
seguru danean,  
biok joango gara  
zaldi urdinean.

Zaldi urdinean honek ba ote du bigarren zentzurik? Guri bitxi bezain harrigarri egiten zitzaigun. Zaldi urdinaren adiera desberdinetan zer ote dago? Guk, ordea, gehienetan agertzen den zaldi apain eta dotore horren adibideak ditugu kontutan. Hona Ataungo eske kopletan agertzen den zaldun gaztearen nota hau:

Errekatxoan arri limuri  
zaldi urdiñe igari,  
orra bada ta (...N) ori  
zazpi erregen kriadi.

Etxeko mutila zazpi erregeren kriari edo kriadi da. Era berean koplaren imajina zoragarrian zaldi urdin bat dago erreka batean igari. Ez dago esan beharrik erregearen kriari den zaldun jaun nobleari horrelako zaldi eder bat dagokiola. Erodrigo Zaratekori ere zaldi urdin bat dagokion bezalaxe...

## 10. POESIA IDATZIAN BA OTE DAGO INTERTEXTUALITATEA?

Hogeigarren mendeko poesia modernoan ere zaldizkoak zaldi dotoreetan ikusten ote ditugu?<sup>31</sup>. Lauaxeta poetak batez ere *Arrats beran* liburuan hainbat poema ditu zaldi eta zaldunekin. Gure ahozko ereduekin, batez ere Mañarikorenekin, antzekotasunik handiena duena "Etxeko alabea" dugu. Bigarren ahapaldian honako hau dio Laukizko poetak:

Lau zaldi zuri, ugel gorri,  
zidarrezko aukoz bitsetan.  
arin-arin, axia iduri,  
eguak daukez zangoetan.

Ahapaldi honetan ez ote dago Lauaxetak berak *Euzkadiko* euskal atalaren arduraduna zela ikusi zuen Mañarikoren ume-kantaren oihartzunik? "Ugel gorriak" ez ote dira urrezko kaskabelez hornituak? Zidarrezko ahokoz daude ornituta zaldiak. Mañarikoren ume-kantan ferrak dira zilarrezkoak. Zaldi zuri edo urdina zaldi azkarra da, inolaz ere. Ez ote da hori zoragarriro adierazten ari modu progresiboan? Lehenengo *arin-arin*, horren lehen konparantza bezala *axia iduri*, eta gero bigarren indargarri eta konparantza bezala "eguak daukez zangoetan"? Poema bereko hirugarren zatian ere honelaxe dator:

Lau zaldi zuri, ugel gorri,  
Mairu-errira zailu duaz.  
-Txiribogin: ardua neuri,  
edontzi au bete naparrez.

Guk atal honetan galdera batzuk egin nahi ditugu. Galdera batzuen bitartez gai bat ateratzea da kontua. Hona hitz batean: ahozko literaturak literatura idatzian duen presentzia aztertzea edo ahozkoa nola moldatu eta modulatu duten poeta modernoek guztiz interesgarria deritzagu<sup>32</sup>.

Gure herri poesiako zaldi urdinaren irudiari erreferentzia bat dago Kirmen Uriberen *Bitartean heldu eskutik* liburuko "Ezikutuko maitea" poeman. Bi aldiz agertzen da errepika bezala "girmaldak, zaldi urdinen urrezko iduneria" esaldia. Bi aldiz agertzen da eta bietan ametsaren erreferentzia egiten du esaldiak. Umetako maitearekin amets egiten duenean, poemako niak amets ederraren kolore eta edergarritzat dio *zaldi urdinen urrezko iduneria* esaldia. Ez dago dudarik. Herri poesiako irudi bat hartu eta beste leku eta zentzu bat eman dio.

---

31. Zaldi urdinak Arantxa Urretabizkaiaren poemaren batean ikusia nago. Ez dakit zeinetan, aurkitu beharko nuke.

32. Bada lan bat moldapen hau aztertzen duena: Eduardo M. Torner, *Lírica hispánica, Relaciones entre lo popular y lo culto*, Editorial Castalia, 1966.

## 11. ONDORIO GISA

Geure lantto honetan, hamabosgarren mende erdialdera, (1448-1468) urte-bitartean, gudu bateko gertaerak oinarri harturik eratu zen Erodrigo Zaratekoren omenezko kantu epiko baten aztarnak aurkitu nahi izan ditugu Bizkaiko ume kantuetan.

Irudi batez esateko: gaztelu handi eder lurreratu baten atalburu edo giltzarri bila ibili gara ume-kanta inozo bezain ederretan. Gaztelu edo jauregi eder bat lurrarekin berdintzen denean ere, zenbaitetan, harlandu ederrik aurki daitekeelako. Horrelako zerbait ez ote da gertatzen hainbat herri-konposizio-tan? Pantxillonon bertso jarrietatik, kasurako, zeinbait bertso erdi dantzakopla bihurtu dira, beste nonbait ikusi dugunez. Kantu zaharrak, gehienetan bere osoan irauten ez badute ere, ez ote dira guganainotu, ez ote dira tradizioz etorri, ume kantuetan konposizio osoago horren zenbait lits, izpi edo ertz?

Uste dugu kantu bateko segmenturik ederrena, mundu adierazkorrik garrantuetakoa duena dela gerora irauteko aukera gehien dituen. Segmenturik ederrena, imajina mundu landu bat duena izan ohi da beste pieza batzuetan irauteko eta are txertatzeko aukera gehiago izan ohi dituen. Segmentu hau denbora eta leku erreferentziak gabea da. Erodrigo Zaratekoren kantan, esaterako, agertzen diren leku-izen (Erbitegui, Marquia-Çuya, Gastela...) eta familien erreferentziak, izen eta birrizen, (E. Zarateko, Juane Abendaño, Cortaçarretarrac, Ibaguendarrac, Sarmientuar-ac, etabar) denborak desegin dituenen zatirik iraunkorrena gelditzen da memorian. Zatik iraunkor hori maila estetiko handikoa da eta erreferentzia zehatzik ez duena denez (leku, garai zein familia, kasurako) genero diferentetako piezatan erabil liteke. Beste modu batera esateko, konposizio handi baten segmenturik ederrena, kasurik onenean, denboraren joanean, beste era bateko kantuetan erreziklatu daiteke. Irudi batez esateko: ezpata uhertu baten heldulekuko harri bitxia ez ote daiteke eraztun bateko begia izan, edo iduneko baten perladuriako perla nagusia?

Gure lan hau burutan ateratzeko, iturri argitaratuetan oinarritu gara. Eredu argitaratu horiek, zaharrenak 1936-39-ko gerra aurrekoak dira zenbait, eta nolabaiteko zahartasun horrek uste baino bide handiagoak zabaldu dizkigu. Azken bi hamarkada hauetan guk batutako aleak, beharbada, hurrengo lan baterako utziko ditugu.

Behin kontuak honetara, beste gai bat ere atera dezakegu. Guk hemen aztertu dugun 15-16 pusketa herriak XV mendean sortu zuen Erodrigo Zaratekoren kantuaren apaingarri eta hornigarri, ala pusketa bera garai hartarako beste kantu batzuetan bereizkiro, erabiltzen ote zen? Bestela esan, artikulu honetan erabili ditugun ume-kantak, nahitanahiez izan behar dute Erodrigo Zaratekoren kantatik eratorriak? Ez ote dira izan gure tradizioan, beste era batera esateko, segmentu eder batzuk genero diferentetan aldi berean erabili diren segmentu autonomoak. Eta segmentu hauek ez ote dute zentzu eta indar berezia hartzen –oso antzekoak edo ia beretsuak izan arren, jakina– erabiltzen diren genero diferentetako piezatan?

Lehenengo bideari ezezik, bigarren honi ere izateko aukera aundiak ikusten dizkiot. Bigarren bide honetako arrazoibideak aurkitzeko hurrengo lan baterako gai izan liteke, inolaz ere.

Ez dago dudarik, azkenik eta buruenik, euskal epikako gain eta bikainaren erakusgarririk ederren bezain zaharrena Erodrigo Zaratekoren kanta dela. Kanta horren oihartzun bete-betekoak gaur eguneko lo-kanta zein ume-kantetan aurkitzea harrigarri bezain hunkigarri egiten zaigu.